



MARTXOAREN 3, GUK EZ DUGU IRABAZI

Eta ez dugu ahazten, noski. Ezin ahaztu eman ziguten jipoia. Poliziaren benetako sarraskia, haietako batzuek langileen kontra destajuz tiro egiten ari zirela aitortua. Greba nola edo hala amaitu behar zuten. Makilaka... eta tiroka! Herri-matxinada zen hura, eta ezin zuten onartu, ezarritako ordenaren aurkako haustura erradikala zekarrelako. Eta, kaina eman ziguten beren munizioarekin amaitu arte eta borrak higatu arte. Ez genuen irabazi, ez. Galdu egin genuen. Garrantzitsuena, bost giza bizitza. Eta ehunka pertsona, balaz zaurituak edo bortizki kolpatuak, atxilotuak, beldurtuak,... Hiri osoa jipoitua bere borroka errenditzeko! Langileen aldarrikapenekin hasi zena benetako aktibismo politikoa bihurtzen ari zen, erabateko aldaketaren bila.

“Botere osoa batzarrerako”; eta egun horretan birrindu egin gintuzten langileen grebarekin eta, bide batez, askatasun-ametsekin amaitzeko asmo errepresiboarekin. Herri iraultza txiki bat, bortizki zanpatua. Asko galdu genuen, baina asko ikasi genuen ere bai. Oso azkar konturatu ginen estatuaren egiturek ez zutela diktadorekiko benetako haustura onartuko. Borrokatu, bai egin genuen; eutsi, eutsi ginen, baina azkenean ez dugu askatasun-maila handirik lortu, botereak kontrol errepresiboko elementu gero eta sofistikuagoak erabiltzen dituelako, eta ez garelako gai izan oinarri batzuk sortzeko sistema-aldaketa erradikala ahalbidetuko duen borroka-dinamika bat garatzeko. Aberatsen eta pobreen arteko aldea eten gabe handitu egiten da. Herriaren nahia oraindik ere atzo baino gehiago gutxietsi eta kontrolatzen da. Galtzen jarraitzen dugu, baina ikasten jarraitzen dugu ezin garelako fidatu bere poltronez baliatzen den ezker politiko profesional eta instituzionalizatu batez. Martxoaren 3an ere ikasi genuen sindikatuak plataforma instituzionalizatu eta kudeatzaile administratibo huts bihurtuko zirela, langileen borroka ordezkatu, hitzartu eta ordezteko, baina langilerik gabe. Bitartean, monarkia pribilegiatuak iraun egiten du. Estatu-batasunaren armada bermatzaileak iraun egiten du. Polizia-egoera errepresiboak bere horretan dirau. Epaile ultrakontserbadoreak iraun egiten du. Estatu patriarkalak iraun egiten du. Elizaren hierarkia *per secula seculorum* Cesaren ondoan dago, eta zeru-zati bat eskaintzen digu esklabotzaren truke. Eta, egungo demokrazia faltsua herriaren nahiak ordezkatzeko tresna manipulatzaile soilik bihurtu da. Ikasi dugu horrela ez dela ezer aldatzen. Badakigu sarraski haren errudunak, polizia-armada hartaz eta zuzenean inplikaturako agintariek gain, orduko politikariak izan zirela, garai hartako gobernazio-ministerio frankistan karguak zituztenak, *Fraga* buru zutela, baina ikasi dugu, halaber, sistema kapitalista dela sarraski haren eta bidegabekeria guztien benetako erruduna. Beraz, orduko politikariak, oraingoak bezala, sistema hori legitimatzen tematzen direnean, konplizeak dira. Galtzen jarraitzen dugu, baina ikasi dugu borrokaren duintasuna ez dela inoiz galtzen.

Oroitu nahi dugu, bai, baina ez memoria pasibo eta nostalgiko batetik, ez data estatiko soil gisa, baizik eta eguneroko ekintzara eramango gaituen erreferentzia gisa, sistemari aurre egiteko, eta, egungo egoera bidegabekoa gainditzeko asmoz, praktika erradikalak aktibatuzko.

Horregatik, agurtzen dugu sektore feministak eta belaunaldi gazteak gaur egun mahai gainean jartzen ari diren proposamen iraultzaileen sorrera; izan ere, proposatzen dituzten taktika eta estrategiekin ados ez egoteaz gain, aurreko mugimendu iraultzailearen (ENAM) noraezean erreformista argi eta garbi zalantzan jartzea lortu dute, eta bide batez, sistema kapitalistarekin eta haren botere-modu desberdinekin (demokrazia ordezkatzailearen eredu barne) haustearen aldeko apustua egitea, Martxoaren 3ko borroken espirtua nolabait berreskuratuz.



TRES DE MARZO, NOSOTRXS NO GANAMOS

Ni olvidamos. Imposible olvidar la paliza que nos dieron. Una auténtica masacre policial reconocida por algunos de ellos mientras disparaban a destajo contra los obreros. Había que acabar con la huelga como fuera. ¡A palos, y a tiros! Aquello era una revuelta popular que no se podía permitir porque suponía una ruptura radical contra el orden establecido. Y nos dieron caña hasta terminar con su munición y desgastar las porras. No ganamos, no. Perdimos. Lo más importante, cinco vidas humanas. Y, cientos de personas heridas, por bala o golpeadas brutalmente, detenidas, atemorizadas, ... Una ciudad entera apaleada para que rindiera su lucha. Lo que empezó con unas reivindicaciones obreras se estaba convirtiendo en un auténtico activismo político en busca de un cambio radical. **“Todo el poder para la asamblea”**. Y ese día nos machacaron con la intención represora de acabar con la huelga obrera y de paso con los sueños de libertad. Una pequeña revolución popular aplastada brutalmente. Perdimos mucho, pero aprendimos mucho también. Muy rápidamente nos dimos cuenta de que las estructuras del estado no iban a permitir una auténtica ruptura con la dictadura. Luchar, luchamos; resistir, resistimos, pero al final no hemos conseguido alcanzar grandes cotas de libertad porque el poder se ha dotado de elementos de control represivos cada vez más sofisticados, y porque tampoco hemos sido capaces de crear unas bases para desarrollar una dinámica de lucha que permita un cambio radical de sistema. La brecha entre ricos y pobres se agranda. La voluntad del pueblo sigue siendo ninguneada y controlada hoy más que ayer. Seguimos perdiendo, pero seguimos aprendiendo que no nos podemos fiar de una izquierda política profesional e institucionalizada que se aprovecha de sus miserables poltronas. También en aquel 3 de marzo aprendimos que los sindicatos iban a convertirse en plataformas institucionalizadas y en meros gestores administrativos que se permiten representar, pactar y sustituir la lucha de las trabajadoras, pero sin las trabajadoras. Mientras, la privilegiada monarquía permanece. El ejército garante de la unidad patria, permanece. El estado policial represivo permanece. La judicatura ultraconservadora permanece. El estado patriarcal permanece. La jerarquía eclesiástica permanece al lado del César *per secula seculorum* ofreciéndonos un trocito de cielo a cambio de la esclava sumisión. Y, la falsa democracia actual se ha convertido en un instrumento manipulador para sustituir los deseos del pueblo. Hemos aprendido que así no cambia nada. Ya sabemos que los culpables de aquella masacre, además de aquel ejército de policías y sus mandos directamente implicados, fueron los políticos de entonces con cargos en el antiguo ministerio franquista de gobernación con *Fraga* a la cabeza, pero también hemos aprendido que es el sistema capitalista el verdadero culpable de aquella masacre y de todas las injusticias. Por tanto, los políticos de entonces al igual que los de ahora, al insistir en legitimar ese mismo sistema son, por tanto, cómplices. Seguimos perdiendo, pero hemos aprendido que la dignidad de la lucha nunca se pierde.

Queremos recordar, sí, pero no desde una memoria pasiva y nostálgica, no como una simple fecha estática, sino como la referencia que nos lleve a la acción diaria, como ejemplo de la capacidad popular para hacer frente al sistema. Y para activar, desde ya, prácticas radicales, encaminadas hacia la superación del actual estado de las cosas.

Por eso saludamos el surgimiento de propuestas revolucionarias que desde sectores del movimiento feminista y las generaciones jóvenes están poniendo sobre la mesa en la actualidad, porque, más allá del acuerdo o desacuerdo con las tácticas y estrategias que proponen, lo que ya han conseguido es cuestionar abiertamente la deriva reformista del anterior movimiento revolucionario (el MLNV) y apostar por la ruptura con el sistema capitalista y sus diversas formas de poder (modelo de democracia representativa incluida), recuperando así de algún modo el espíritu de las luchas del 3 de Marzo.